

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HERRITARREN PARTAIDETZAREN, GARDENTASUNAREN ETA GIZARTE ETXEEN SAILA

Herritarren Partaidetzaren Zerbitzua

2021ean auzoetan dinamizazio eta partaidetza sozialean laguntzen duten proiektuetarako auzo-elkarteentzako laguntzak arautuko dituzten berariazko oinarriak

2020ko abenduaren 23an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko Udalaren 2021eko dirulaguntzen deialdiak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Udalaren webgunean kontsulta daitezke oinarri orokor horiek —vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak—, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Deialdi honetara aurkeztu nahi duten elkarteek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko eskabideak non eta nola aurkeztu, zein betebeharrak izango dituzten, dirulaguntzak nola justifikatu behar diren, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

1. Dirulaguntzen ildoak.

Auzoetan partaidetzaren kultura sustatzeko auzo-elkarteek eta elkarte horien federazioek bideratzen dituzten proiektuei laguntzeko dirulaguntza.

2. Deialdiaren xedea.

Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuaren helburu espezifikoaren artean dago udalerriko herritarren entitate eta kolektiboen lana babestu eta erraztea, herritarren interes publikoko gaietan parte hartzearen balioen inguruan sentsibilizatzeko, gizarte hobetzeko hausnarketaren eta eztabaidaren bidez.

Vitoria-Gasteizko udalerriko auzo-elkarteen eta auzo-elkarteen federazioen lana errazteko bitartekoa izan nahi du deialdi honek, udal baliabideak horien eskura jartzen dituelarik —lokalak erabiltzeko baimena— eta ekonomikoki laguntzen dielarik kudeaketa-gastuei eta urtean zehar garatzen dituzten proiektuen parte bati aurre egiten. Partaidetza dinamizatzea, gizarte-kohesioa suspertzea, gizalegezko jokabideak bultzatzea eta integrazioa aldeztzea da helburua; azken batean, auzoko herritarren bizi-kalitatea hobetzen laguntzea.

Hortaz, helburu hauek dituzten proiektuek jaso ahal izango dute dirulaguntza: elkarten jarduna sustatzea, ideiak trukatzeko espazioak sortzea, hirian garatzen diren partaidetza-prozesuetan herritarren inplikazioa bultzatzea, informazioa ematea, berdintasuna sustatzea, euskararen erabilera sustatzea, gizarte-integrazioa bultzatzea eta bizikidetzaren hobetzea.

Aurkezten diren proposamenetan ezingo dira sartu Vitoria-Gasteizko Udalak onetsitako udal planei kalte egingo liekeen ekintzarik (1), ezta ordenamendu juridikoak babesten dituen oinarriko eskubideetako edozein urratzea leharkean ere, hartara pertsona guztien eskubide eta askatasunak errespetatu daitezkeen.

(1) Vitoria-Gasteizko Udalaren berdintasun-plana, gazte-plana, mugikortasun-plana, irisgarritasun-plana, herritarren partaidetzaren plana, araudi grafikoa, hizkuntza-normalizazioaren arloko araudia eta abar, zein webgunean kontsulta baitaitezke.

3. Baliabide ekonomikoak.

Deialdi honen barruan ematen diren dirulaguntzak Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuaren 2021eko aurrekontuko 18 22 9242 4 8954 partidako aurrekontu-kredituaren kontura izango dira —aurreikusitako gehieneko zenbatekoa 180.000,00 eurokoa da—.

Aldez aurreko tramitazioa izango du deialdi honek, azaroaren 17ko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Dirulaguntzen Araudi Orokorren 56. artikuluan xedatutakoaren ildotik, eta, horrenbestez, dirulaguntzak ematekotan, nahiko kreditu egoki izan beharko du deialdia ebazteko orduan.

4. Eskatzaileak.

Entitate hartzaileak: auzo-elkarteak eta auzo-elkarteen federazioak.

Oinarri orokorretan adierazten diren betebeharez gain, baldintza hauek bete beharko dituzte entitate eskatzaileek:

- Auzo-elkarte edo auzo-elkarteen federazio gisa eratuta egotea.
- Estatutuetako xedeetan argi eta garbi jasota agertzea auzo-elkarteen izaera dutela, eta helburuen artean edukitzea deialdiaren xedearekin zerikusia duten jarduerak egitea.
- Jarduera-eremua Vitoria-Gasteizko udalerrria izatea. Udalerriko auzo batekin edo batzuekin bat etorri beharko du jarduera-eremuak.
- Baztertuta geratzen dira oinarri orokorretan adierazten diren entitateak, eta gainera:
- Bazkideen interesak babestea edo jabe talde jakin baten zerbitzu komunak kudeatzea xede duten elkarte, federazio eta bestelako entitateak.
- Arrazoi sexual, etniko, erlijioso, politiko edo sindikalak tarteko edonori zuzenbide osoz parte hartzea galarazten dioten entitateak.
- Kontzejuko administrazio-batzarra duten udalerriko nekazaritza-eremuko herrietan eratu diren auzo-elkarteak, hark egoitza herrian duten auzotar guztiak hartzen baditu.

5. Dirulaguntza jaso dezaketen proiektuak.

5.1. Jarduera-programa.

1. atala: informazio-, aholkularitza-, komunikazio- eta zabalkunde-zerbitzuak: argitalpenak, buletinak, aldizkariak.

Jarduera horien artean informazio- eta zabalkunde-gastuak sartu ahal izango dira: kartelak, liburuxkak, itzulpenak, hedabideetako iragarkiak eta antzekoak. Oroitidazkian jaso beharko dira egindako materialen kopiak, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzaren 19.3.b artikuluan xedatutakoaren ildotik. Betiere, material guztiak euskaraz eta gaztelaniaz egon beharko dute.

2. atala: prestakuntza eta aisialdira zuzendutako ekintzak —hitzaldiak, lantegiak, ikastaroak...—.

Ez dira onartuko ikastaro eta lantegietan erabilitako materialen fakturak, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik.

3. atala: herritarren partaidetza sustatzen duten jarduerak eta auzoko beste kolektibo batzuei laguntzea —debateak, mahai-inguruak, biltzarrak, topaketak, foroak—. Zabalkunde-eta sentsibilizazio-kanpainak, auzo bakoitzaren berariazko arazoekin zerikusia duten gaien inguruan nahiz bestelako gaien inguruan, hala nola: berdintasuna; iraunkortasuna; gizalegeko jokabideak, auzoa garbi eta txukun egon dadin; zailtasunak dituzten sektoreei arreta ematea; giza eskubideak ezagutu eta errespetatzea; boluntario-lanaren sustapena; balioetan hezteak; belaunaldien eta kulturen arteko bizikidetzak, eta abar. Partaidetza-prozesuetan eta udal programetan parte hartzea. Erakartzeko kanpainak. Gizarte-etxeekin lankidetzan aritzea.

4. atala: gizarte-jarduerak: berariazko udal laguntzarik ez duten jai-, kultura- eta kirol-ekitaldiak, zeinen helburua bizikidetzaren hobetzea den, eta auzokoen arteko harremanetan, lankidetzan eta integrazioan laguntzen duten. Auzokoen arteko laguntza- eta lankidetzaren programak.

Ez dira diruz lagunduko beste udal sail eta zerbitzuen programazioan sartuta dauden jarduerak, haien osagarri izan ezean.

5.2. Ekipoak eta lokalak kudeatu eta onik zaintzeko gastuak.

• Justifikatu beharreko dirulaguntzatik gehienez 2.100,00 euro baliatu ahal izango dira horretarako. Ekipoak eta lokalak kudeatu eta onik zaintzeko gastu hauetarako jaso ahal izango da dirulaguntza:

• Bulegoko material suntsikorra erostea.

• Telefono-linearen eta ADSL konexioaren gastuak. Telefonoa eta internet-konexioak direla eta gehienez 800,00 euro justifikatu ahal izango dira urtean. Web-domeinuak erosi edo mantentzeari dagozkion fakturak ere onartuko dira.

• Pandemia sanitarioak iraun bitartean elkarrekin antolatzen dituen jardueretarako beharrezko gertatzen den norbera babesteko materiala erostea.

• Lokalak garbitzeko gastuak, produktuenak barne.

• Ekipoak onik zaintzeko materiala edo zerbitzuak.

• Lokalei dagozkien aseguru-polizak, eta elkarrekin edo federazioaren erantzukizun zibileko asegurua. Berariazko erantzukizun zibileko asegurua eskatzen duten jardueren kasuan —esaterako, jaiak antolatzea—, horren kostua jardueren atalean sartuko da.

• Posta-gastuak.

Ez da dirulaguntzarik emango suntsikorra ez den materialerako, hala nola, ordenagailuak, inprimagailuak, etxetresna elektriko txikiak, ikus-entzunezko gailuak, bulegoko altzariak... Ez dira inolaz ere diruz lagunduko janari eta edariak, opariak —zozketetarako, Gabonetako saskietarako, lehiaketetarako eta antzekoetarako direnak barne—, txangoak eta antzekoak.

6. Udal aretoak elkarrekin egoitza gisa erabiltzeko baimena.

0 eranskinean adierazten diren lokalak ditu Vitoria-Gasteizko Udalak. Gaur egun, auzoko auzo-elkarrekin okupatzen dituzte lokal horiek, erabiltzeko baimena edo lagapena dela medio.

Dirulaguntza-deialdi publiko honen bitartez, eta, nolahi ere, oinarri hauetan biltzen diren baldintzak betetzen direlarik, elkarrekin horiek —modu jarraituan— beren jardueraren garatzeko espazio bat behar dutela aitortzen du Vitoria-Gasteizko Udalak. Horregatik, auzoarentzat interes orokorrekoak diren programa eta jarduerak gara ditzaten, haien eskura jartzen ditu lokal horiek. Erabiltzeko baimen edo lagapena izango da eskura jartze hori legitimatzeko titulu juridikoa, eta epea, berriz, baldintzetan adierazten dena.

Erabilera doakoa izango da, eta ez da inolako bermerik jarri behar; izan ere, horrelako entitateek ez baitute ez etekinik ez onura ekonomikorik ateratzen horretatik.

Modu eskusiboan edo beste auzo-elkarrekin batzuekin partekatuz erabili behar dira lokalak, premiaren zenbatekoaren edo elkarrekin jardueraren beste aldagai batzuen arabera —elkarrekin proiektuan aurkeztu den dokumentazioan frogatu behar dira horiek—.

Nolahi ere, Administrazio Publikoaren Ondarearen azaroaren 3ko 33/2003 Legean xedatutakoak arautuko du lokal horiek erabiltzeko baimen edo lagapena. Zentzu horretan, hau adierazten da:

6.1. Lokalak erabiltzen uzteko baimena emateko eta armairuak esleitzeko irizpideak.

Lokalak egoitza gisa erabiltzeko eskabideak baloratzeko irizpideak dirulaguntza emateko oinarri hauetan deskribatzen direnak izango dira, eta adierazitakoaren arabera barematuko dira. Lokala eskuratzekotan, gutxienez 50 puntu lortzea eskatuko da. Kokapen geografikoaren arabera esleituko dira lokalak, jarduera-eremu edo -auzoaren hurbiltasuna kontuan hartuta.

6.2. Erabiltzeko baimen edo lagapenaren iraupena.

a.- Urtebeteko iraupena izango du lokala erabiltzeko baimenak, deialdi hau ebazten den egunaren biharamunetik, eta beste urtebetez luzatu ahal izango da, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko 33/2003 Legearen 92.4 artikuluan araututako baliogabetze-kasuak gorabehera.

b.- Urtea igaro ondoren, luzatu ahal izango da, herritarren partaidetzaren arloko zerbitzu teknikoek aldeko txostena egiten dutelarik, Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuko talde teknikoak elkarte bakoitzarekin adosten duen proiektuaren jarraipen eta ebaluazioan oinarrituta. Eskututako lokalaren premiaren justifikazioak bere horretan jarraitzen duen erabakitzen lagunduko du ebaluazioak.

c.- Gehieneko epea bukatzen delarik —luzapena barne—, beste deialdi bat egin beharko da, barematze-prozesu berri batekin, horretarako onesten diren oinarrien arabera.

6.3. Lokalak erabiltzeko baldintzak.

a.- Elkarateak aurkezten duen proiektu globalak 50 puntuko edo hortik gorako puntuazioa lortu beharko du baliabide hori baliatu ahal izatekotan.

b.- Udalari dagokio lokala onik zaintzea, eta hobekuntza edo aldaketak egitea. Halakorik behar izanez gero, eskabide arrazoitua egin beharko da, eta aurreikusitako diru-kopurua adierazi. Udalak, Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuak hala proposaturik, bideragarritasuna aztertuko du, eta garaiz eta idatziz erantzungo, horiek gauzatzetik dagoen, baita ekimenaren ondorio ekonomikoak ere. Edonola ere, ez da baimenduko eraikinean edo bertako edozein gelatan obrarik egitea, ez bada Udalak berariazko baimen idatzia emanda.

c.- Erabilera-baimena edo lagapena zergetatik —OHZ, zaborrak— salbuetsita egongo da, eta argindar- eta gas-kontsumoak Udalaren kontura izango dira, baita ur-kontsumoa ere.

d.- Elkarateak jakitun dira eta onartu egin beharko dute Vitoria-Gasteizko Udalak eskubidea duela lagapena bere kabuz baliogabetzeko, interes publikoa dela kausa, Administrazio Publikoen Ondarearen 33/2003 Legearen 92.4 artikuluan araututako kasuetan, eta ez duela horregatik ordainsaririk eman beharrik.

e.- Erabiltzen den lokala ikuskatzeko eskubidea izango du Vitoria-Gasteizko Udalak, baimean zehaztutakoaren arabera egiten dela bermatzeko.

f.- Doan erabiliko da lokala, eta ez da bermerik aurkeztu beharrik izango.

g.- Baimena edo lagapena iraungi egingo da lokala elkaratearen berariazko jardueretarako erabiltzen ez bada edo hiru hilabetetik gorako epean erabiltzen ez bada, baita Administrazio Publikoen Ondarearen azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 100. artikuluan jasotako gainerako arazoiengatik ere.

h.- Formalizatzen diren hitzarmenetan aurrekoen osagarri ezartzen diren gainerako baldintzak.

6.4. Elkarteen betebeharrak.

Lokalen erabilerean esleipendun diren auzo-elkarreek konpromiso hauek hartzen dituzte:

a.- Lokalaren erabilera partekatzea, auzoan auzo-elkarte bat baino gehiago badago. Espazioaren erabilera koordinatzeko konpromisoa hartu beharko dute elkarreek. Lokalaren erabilera partekatuan tirabirarik sortzen bada, eta edozein elkarrek hala jakinarazten, Udalak erabakiko

du zein izango den elkarteen arteko espazioen edo denboren banaketa. Erabiltzeko baimenak izaera indibiduala du auzoan auzo-elkarte bakarria dagoen kasuetan.

b.- Lokala erabiltzeko nahiz bertan jarduerak egiteko behar diren lizentzia eta baimenak oro eskuratzeko konpromisoa hartuko dute elkarteek. Sor litezkeen tasak elkarteen kontura izango dira.

c.- Elkarteek lokala erabiltzen utzi beharko diete beste kolektibo batzuei, baldin eta kolektibo horiek —elkarteek berek bezalaxe— bizikidetzaren eta gizarte-sustapenaren alde badihardute zonan edo auzoan, eta baimenean finkatutako baldintzak betetzen badituzte, inongo kosturik gabe utzi ere.

d.- Elkarteek beren gain hartu beharko dute lokala okupatzearen ondoriozko erantzukizuna, eta beren jarduerak hirugarrenei eragin liezazkiekeen kalteen aurrean erantzun. Lokala erabiltzeko baimena eman edo hura lagatzera mugatzen da Udala, eta ez du egite edo ez-egitearen ondorioz lokalean gerta litekeen kalte material edo pertsonalen gaineko erantzukizunik bere gain hartuko, ez zuzenean ez modu subsidiarioan, elkarteari baitagokio erantzukizun zibileko aseguruia kontratatzea, eta baimen edo lagapenak iraun bitartean indarrean edukitzea. Vitoria-Gasteizko Udalak aseguratu gehigarriaren izaera izango du, horregatik hirugarrenaren izaera galdu gabe.

e.- Halaber, elkarteak sute-asegurua edo aseguru konbinatua kontratatu beharko du, gutxienez birjartze- edo konpontze-balioaren pareko estaldurarekin —Udalak emango dio balio hori—.

f.- Kontratutako aseguruaren eta aldian aldiko eguneratzeen kopiak helaraziko beharko dizkio elkarteak Udalari.

6.5. Lokala edo esleitutako armairua erabiltzeko eskubidea galtzeko arrazoiak izango dira:

a.- Lokalak elkarteen berariazko zereginetarako ez erabiltzea.

b.- Elkartea desegitea.

c.- Elkarteek aretoa erabiltzeko baldintzak eta erabilera- eta elkarbizitza-arauak ez betetzea.

d.- Baimendutako espazioak arruntean eta jarraitutasunez ez erabiltzea. Hortaz, eta bereziki lokalak elkarteen egoitza gisa erabiltzeko ematen diren baimenen kasuan, beharrezko diren egiaztapenak egin ahal izango ditu Vitoria-Gasteizko Udalak, Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuaren bitartez, lokala irekitzeko ordutegia —aurkeztutako dokumentazioan adierazitakoa— kontutan hartuta. Zenbait aldiz saiatu eta baimendutako lokala esandako ordutegian ez dagoela jendearentzat irekita ikusiz gero, eta Herritarren Partaidetzaren Zerbitzua horren jakinaren gainean jarri ez bada, erabiltzeko baimena bertan behera utzi ahal izango da. Arauzko bideetatik jakinaraziko da hori.

e.- Lokalaren premia justifikatzen duten arrazoiak desagertzea —Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuak elkartearekin hitzartutako proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa oinarritzat hartuta—.

f.- Administrazio-zigorra edo zigor penala ezarri izana, eraso edo diskriminazio matxistengatik edo dibertsitate funtzionalaren, jatorriaren nahiz giza eskubideen beste edozein alderdiren kontrako jokabideengatik.

g.- Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legean ezarritakoa ez betetzea; bereziki, 4.b) artikuluari dagokionez.

h.- Borondatez uko egitea.

i.- Interes publikoa dela eta aldeetako batek baliogabetzea, Administrazio Publikoen Ondarearen 33/2003 Legearen 92.4 artikuluan araututakoaren ildotik.

j.- Administrazio Publikoen Ondarearen azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 100 artikuluan jasotako kausak, deialdi honi eragiten dioten neurrian.

6.6. Gizarte-etxeetan espazioak baimentzea.

Auzo-elkartek ez badute egoitza sozial gisa erabil lezaketen udal lokalik, edo daukatenak ezin baditu diruz lagundutako proiektuan proposatzen diren jarduerak hartu, beren eragin-eremuko gizarte-etxeetan erabilgarri dauden espazioak erabili ahal izango dituzte.

Gizarte-etxeetan erabilgarri dauden espazioak erabiltzeari dagokion tasa doan izango da, 7.11.5. ordenantza fiskalean xedatutakoaren ildotik. Doakotasunak ez du barne hartzen jarduera garatzeko beharrezkoa den laguntza teknikoa, zein, izatekotan, zerbitzu horiek ematen dituzten kanpoko enpresekin kontratatu beharko baitira, eta entitate eskatzaileak ordaindu beharko baititu.

Bai gizarte-etxeetako espazioak erabili ahal izatekotan, bai horien erabilerari dagokion tasa doakoa izatekotan, betebeharrak hauek bete beharko dira:

- Deialdi honetan aurkeztutako proiektuan zehazten diren eta dirulaguntza jaso duten jarduerak izan beharko dute. Dirulaguntza emateko ebazpenean zehaztuko dira dirulaguntzarik jaso ez duten jarduerak.

- Gizarte-etxeetako instalazioak erabili ahal izatea zein jardueretarako eskatzen den zehaztu beharko da proiektuan, eta datak eta ordutegiak adierazi. Jarduera edo ekintza zehatzak izan beharko dute, ez zehaztasunik gabeko kontu orokorrak. (Onargarri diren jardueren adibideak: euskararen astea, gai jakin baten inguruko hitzaldi-zikloa... Onargarri ez diren jardueren adibideak: euskara sustatzeko jarduerak, hitzaldi-zikloa, dinamizazio-jarduerak, partaidetza sustatzeko jarduerak...).

- Udalak ez du bermatzen espazioak eskatzen diren egun-orduetan erabilgarri egongo direnik. Horregatik, elkartek eskaera ofiziala egin beharko dute, eta daten eta erabilgarri dauden espazioen arabera ebatziko da zentro bakoitzean, eta auzo-elkartearekin adostuko.

- Jarduerak finkatutako irizpideei erantzuten dieten aztertu eta ebatziko du Udalak, Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuaren proposamena dela medio.

- Auzo-elkartek entitate antolatzailea izan beharko du; ez da erabilera doakoa izatea lortuko hirugarrenen izenean badihardu, espazioa edo instalazioa erabiltzeko baimena eskatzen den proiektu, ekintza edo jardueran parte hartu arren.

- Gizarte-etxeetako programazioarekin partekatutako proiektuen kasuan, ez da beharrezko izango auzo elkartek eskabidea egitea.

- Eskatutakoarekin bat ez datozen eskariei dagozkien tasak aplikatuko zaizkie. Tasa ordaindu izanaren egiaztagiria dirulaguntzaren kontura gastua justifikatzeko baliatu ahal izango da, baldin eta planteatutako jarduerak deialdiko irizpideak betetzen baditu.

7. Eskabideak eta dokumentazioa.

7.1. Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea.

2021ko otsailaren 26ra arteko izango da eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea.

7.2. Informazioa eta dokumentazioa.

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean egongo da eskuragarri, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuak aholkularitza emango du, telefonoz —945 161687— nahiz posta elektronikoz —partaidetza02@vitoria-gasteiz.org—.

7.3. Tramitazioa.

Udal-dirulaguntzen oinarri orokorretan —vitoria-gasteiz.org/dirulaguntzak— adierazten denaren arabera.

Dokumentazio hau aurkeztu beharko da eskabidearekin batera:

1. Eskabidea.

2. 1. eranskina: auzo-elkarteen komunikazio- eta partaidetza-bideak.

3. 2. eranskina: bazkideen zinpeko aitortpena.

4. 3. edo 4. eranskina: jarduera-proiektua lantzeko gida —gehienez 12 orri, eranskin eta antzekoek gain—.

5. Eskabidea izenpetzen duenaren ordezkaritza-ahalmenaren egiaztagiria, eta nortasun-agiriaren fotokopia.

6. Banketxearen egiaztagiria, kontu-zenbakia eta titularraren izena agertzen dituen —elkar-teak berak izan beharko du titular—.

7. Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuak lehendik ez baditu, orobat erantsi beharko dira estatutuen fotokopia, zuzendaritza-batzordearen osaera egiaztatzen duen dokumentazio eguneratua, identifikazio fiskalerako txartelaren fotokopia eta elkarte dagokion erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.

8. Dirulaguntza-eskabidea ez badago behar bezala formalizatuta edo daturen bat falta badu, edo eskatutako agiriren bat aurkezten ez bada, akatsa konpontzeko eskatuko zaio pertsona edo entitate eskatzaileari, eta orobat ohartaraziko horretarako ezarritako epean hala egin ezean eskabidea artxibatu egingo dela.

8. Balioespen-irizpideak.

Gehieneko puntuazioa 150 puntukoa izango da. Honela banatuko da gehieneko puntuazio hori:

• Entitateari dagokionez:

a. Bazkide-kopurua, behar bezala egiaztatuta:

• 1-20 bazkide: puntu 1.

• 21-50 bazkide: 2 puntu.

• 51-100 bazkide: 3 puntu.

• 101-200 bazkide: 4 puntu.

• 200 bazkide baino gehiago: 5 puntu.

b. Auzo-elkarteen federazioen kasuan:

• Udalerriko 1-5 elkarte federatu: puntu 1.

• Udalerriko 6-10 elkarte federatu: 2 puntu.

• Udalerriko 11-15 elkarte federatu: 3 puntu.

• Udalerriko 16-20 elkarte federatu: 4 puntu.

• Udalerriko 20 elkarte federatutik gora: 5 puntu.

Elkarteko nahiz federazioko idazkariak sinatu eta lehendakariak ontzat emandako zinpeko aitortpenaren bitartez egiaztatu beharko da bazkide-kopurua. Elkarteko kideen zerrenda —izen-deiturak eta nortasun-agiriak— eskatu ahal izango die Udalak elkarteei. Hala egiten badu, horretarako sortutako dirulaguntzen fitxategian sartuko ditu Udalak jasotzen dituen datuak,

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoa betetze aldera, eta betebeharra betetzen dela egiaztatzeko eta ez bestetarako baliatuko du.

c. Auzoko bizilagunei arreta ematea. Komunikazio eta informaziorako bideak. Jendaurreko ordutegia, postontzia, kartelak, argitalpenak, harremanetarako telefonoa, posta elektronikoa, webgunea eta abar. Gehienez 12 puntu.

d. Partaidetza-organoetan — auzogune eta elkarguneetan — parte hartzea. Gehienez 10 puntu.

e. Auzoko beste elkarte eta gizarte-eragile batzuekin lankidetzan aritzea, programa edo jarduerak antolatzeko. Zehaztu egin behar da zein programa edo jardueratan gauzatzen den lankidetzaren hori, eta zer nolakoa den. Gehienez 10 puntu.

f. Udalak bideratutako programa, plan eta partaidetza-prozesuetan laguntzea. Gehienez 8 puntu.

Guztira, atal honetan: 45 puntu.

• Garatuko den proiektuari edo jarduerari dagokienez.

a. Oinarriak. Diagnostikoa. Auzoko errealitatea ezagutzeko: auzoaren deskribapena, behar-arrak, biztanleak, alderdi sendoak. Lortu nahi diren helburuak finkatzeko izan diren arrazoiak argudiatzea. Gehienez 12 puntu.

b. Proiektuan 2021erako planteatutako helburuak, aurreko puntuan azaldutako auzoko errealitatearekin zerikusia dutenak. Gehienez 10 puntu.

c. Helburuen eta jardueren arteko koherentzia. Proposatutako helburu bakoitza zehaztu behar da, eta, horiekin batera, horiek lortzeko bideratu beharreko jarduerak. Gehienez 10 puntu.

d. Ebaluazioa. Erabilitako ebaluazio-sistemak. Proiektuan bertan erabilitako irizpideak eta adierazleak: inkesta eta iritzi-galdeketa auzokoei, eta auzoan gertatutako aldaketak islatzen dituzten agiriak. Espero diren emaitzak adieraztea. Gehienez 6 puntu.

e. Planteatutako jardueren aniztasuna (1., 2., 3. eta 4. atalak). Gehienez 4 puntu.

f. Proposatutako jardueren eragina, hartzaila-kopurua, aniztasuna — populazio-sektoreak — eta oihartzuna kontuan hartuz. Gehienez 5 puntu.

g. Zeharkakotasuna sustatzen duten ekintzak: euskara, berdintasuna, kulturartekotasuna eta gizarte-inklusioa. Gehienez 4 puntu.

h. Garatu diren jardueren kopurua. Gehienez 10 puntu.

i. Jarduera urte osoan banatzea. Gehienez 5 puntu.

j. Auzokideen partaidetza sustatzeko jarduerak zehatzak: auzo-biltzarrak, kanpainak, auzo osorako jarduerak, kontsultak, komunikazio-kanalak, jardunaldiak. Gehienez 15 puntu.

Guztira, atal honetan: 81 puntu.

Elkarteari auzoan duen ezarpen-mailari dagokionez:

a. Elkarteari ezarpen-maila. Kontuan hartuta hiriko auzo batzuetan auzo-elkarte bat baino gehiago dagoela, 24 puntu banatuko dira hiriko auzo bereko ordezkari gisa aurkezten diren artean. Hartara, proiektu bakarra aurkezten den auzoen kasuan, proiektu horrek 24 puntuak lortuko ditu. Hortik abiatuta, auzo berean aurkeztutako eskabideen artean banatuko da kontzeptua. Gehienez 24 puntu.

b. Federazioen ezarpen-maila. 24 puntu erreserbatuko dira kontzeptu horretan, eta auzo-elkarteen federazioek aurkezten dituzten eskabideen artean banatuko. Gehienez 24 puntu.

Guztira, atal honetan: 24 puntu.

9. Laguntza emateko prozedura.

Laguntza hauek emateko konkurrentzia-erregimena baliatuko da, hau da dirulaguntzak emateko alderatu egingo dira aurkeztutako eskabideak, hartara lehentasun-hurrenkera ezartze aldera —aurreko artikuluan adierazitako irizpideen arabera— eta puntuaziorik handiena lortzen duten eskabideei emango zaizkie dirulaguntzak, inolaz ere deialdiaren berariazko oinarrietan finkatuko aurrekontu-zuzkiduraren zenbatekoa gainditu gabe.

9.1. Gutxieneko eta gehieneko zenbatekoa.

Kalkulua egiteko, 50 puntutik gorako puntuazioa lortzen duten proiektu globalak dituzten elkarteen eskabideak bakarrik hartuko dira aintzat.

Gutxienez 1.500,00 euroko dirulaguntza finkatu da 50 puntuak gainditzen dituzten elkarteentzat, eta gehienez 15.000,00 eurokoa, lortutako puntuazioaren arabera.

9.2. Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko formula.

Gutxieneko puntuazioa gainditzen duten auzo-elkarte eta federazio guztiei, hasteko, 1.500,00 euroko zenbatekoa izendatuko zaie, lortutako puntuazioaren arabera.

Aurrekontu osoari aurreko puntuan ezarritakoaren arabera esleitutako zenbateko osoa kenduko zaio.

Gainerako zenbatekoa honela esleituko da:

Aurrekontuaren gainerako zenbatekoa auzo-elkarte eta federazio guztiek lortutako puntuen artean zatituko da —laguntza eskuratzeko elkarte edo federazioek ezinbestean lortu beharreko 50 puntuak kenduta—, eta hori puntu bati dagokion balioa izango da.

Ondoren, balio hori eta auzo-elkarte eta federazio bakoitzak lortutako puntuak biderkatuko dira —ezinbesteko 50 puntuak kenduta—, eta horren arabera lortuko da bakoitzari esleitu beharreko zenbatekoa.

Lortutako zenbatekoa auzo-elkarteak edo federazioak eskatutakoa baino handiagoa bada, soberako zenbatekoa kenduko zaio eta funts bat sortuko da, eta hori berriro banatuko.

Funts hori behar den guztietan banatuko da berriro, 2. puntuan erabilitako irizpide berari jarraituz, eta banaketatik bazter utzita eskatutako zenbatekoa dagoeneko lortu duten auzo-elkar-teak edo federazioak.

10. Dirulaguntza ordaintzea.

Dirulaguntzak aldi bakarrean ordainduko dira, aldeztu aurreko ordainketa gisa, lortutako puntuazioak eta erabilgarri dagoen aurrekontua kontuan hartuta, deialdia ebatzi eta oinarri orokorretan adierazten den moduan jakinarazi ondoren, inongo bermerik jarri beharrik gabe.

Edonola ere, udal lokal bat erabiltzeko baimen bakarra emango zaio elkarte bakoitzari, eta zenbateko bakarra, programan aurkeztutako jarduerak garatzeko.

Ez da dirulaguntza ordainduko baldin eta Udalak emandako beste dirulaguntzaren bat artean justifikatu gabe badu pertsona edo entitate onuradunak, edo, lehendik emandako dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatu zaiolarik, itzuli ez badu. Ezin izango da dirulaguntza ordaindu harik eta pertsona edo entitate onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte; orobat, ez zaio ordainduko dirua itzultzeko prozedura baten ondorioz zordun bada.

11. Dirulaguntza justifikatzea.

– Justifikatzeko epea

Entitate onuradunek egindako gastua justifikatzen duen kontua aurkeztu beharko dute 2022ko urtarrilaren 31 baino lehen.

– Justifikatu beharreko zenbatekoa.

Diruz lagundutako jardueraren aurrekontuaren ehuneko 100 justifikatu beharko da, ez Udalak emandako diru-kopurua bakarrik.

– Justifikatzeko sistema.

Udal-dirulaguntzen oinarri orokorretan xedatzen denaren arabera, zeharkako kostuei dagokien eranskina salbu. Egindako proiektuaren oroitidazkia eta oroitidazki ekonomikoa bildu beharko ditu justifikatzeko dokumentazioak.

Legez eskatzen diren datu guztiak jasotzen dituzten fakturak baino ez dira onartuko (faktura-zenbakia, jaulkipen-data, izen-abizenak, izen sozial osoa, zerga-administrazioak emandako identifikazio fiskalerako zenbakia, eragiketen deskribapena, BEZ edo bestelako zerga-tasak).

Emandako dirulaguntza justifikatzen ez bada, edo nahikoa justifikatzen ez bada, itzuli egin beharko da ordaindu den arren justifikatu ez den zenbatekoa.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko abenduaren 23an

*Herritarren Partaidetzaren, Gardentasunaren eta Gizarte Etxeen Saileko
Administrazio Zerbitzuko burua
MARILÓ MOVILLA RIVAS*

0 ERANSKINA		
UDAL LOKALA	AUZO ELKARTEA	OHARRAK
Heraclio Fournier 30	ADURTZAKOAK	PARTEKATUA
Arana Gizarte Etxea - Aragoe 7	ARANAKO	Hirugarrena
Aiztogile kalea 61	BARRENKALE	
Iparralde 2 Gizarte Etxea - Behenafarroa z/g	BIZIGARRI	PARTEKATUA
Uribeguela 6	CAUCE VECINAL	PARTEKATUA Hirugarrena
Jacinto Benavente 17	ERREKATXIKI	
Simone de Beauvoir Elkartearen Etxea - San Ignazio Loiolakoaren kalea 8 - 3.a	ERROTA ZAHARRA	
Juana Jugan plaza- Gazalbide Merkataritza Gunea 41-49	ETXEGORRI	PARTEKATUA
Francisco Javier Landaburu z/g	FAVA	PARTEKATUA
Eskola kalea 9	GASTEIZ TXIKI	
Ariznabarra 27	GAZTELUEN AUZOA	
Lima 2	GURE AUZUNE	
Dantzari Plaza 5	HEGOALDEKOAK	
Francisco Javier Landaburu z/g	IPARARRIAGA	PARTEKATUA
Cola eta Goiti 5-7	JUDIMENDIKOAK	
Oto Hiribidea 22	KALEARTEAN	
Estrasburgo 17	SALBURUA BURDINBIDE	
Vera Fajardo margolariaren kalea 9	SAN MARTIN	
Juana Jugan plaza- Gazalbide Merkataritza Gunea 41-49	TXAGORRIBIDEA	PARTEKATUA
Uribeguela 6	URIBENOGALES	PARTEKATUA Hirugarrena
Zabalgana Hiribidea 46	ZABALGANA BATUZ	
Amaia Zentro Soziokulturala - Benito Perez Galdos plaza z/g	ZAZPIGARREN ALABA	
Heraclio Fournier 30	ZONA SUR OLARIZU	PARTEKATUA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

CPAR_001

1. eranskina: Auzokoekin, komunikatzeko eta parte hartzeko bideak

Anexo 1: Canales de comunicación, información y participación con el vecindario

Herritarren Partaidetza, Gardentasuna eta Gizarte Etxeen Saila
Departamento de Participación Ciudadana, Transparencia y Centros Cívicos

Tfnoa - Tf: 010 / 945 16 16 16
informacion@vitoria-gasteiz.org

ELKARTEAREN IZENA – NOMBRE DE LA ASOCIACIÓN	AUZOA - BARRIO
<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="checkbox"/> Jendeari arreta emateko ordutegia. Zehaztu - <i>Horario de atención al público. Detallar</i>	<input type="text"/>
<input type="checkbox"/> Harremanetarako telefonoa – <i>Teléfono de contacto</i>	<input type="text"/>
<input type="checkbox"/> Iradokizunen postontzia – <i>Buzón de sugerencias</i>	<input type="text"/>
<input type="checkbox"/> E-maila – <i>Email</i>	<input type="text"/>
<input type="checkbox"/> Web orria – <i>Página web</i>	<input type="text"/>
<input type="checkbox"/> Aldizkariak (aurreko alea aurkeztearen beharra), buletin digitalak – <i>Publicaciones (presentar último ejemplar), boletín digital</i>	<input type="text"/>

PARTE HARTZEA - PARTICIPACIÓN	
Parte-hartze organoak (auzogune eta auzokoekin partaidetzarako elkarguena - <i>Órganos de participación (auzogune y elkargune de participación vecinal)</i>)	
<input type="checkbox"/>	<input type="text"/>
<input type="checkbox"/> Batzorde bilerak, noizean behin – <i>Reuniones Junta periódicas</i>	<input type="text"/>
<input type="checkbox"/> Auzoan egindako azken batzarraren data. Bertaratuen kopurua <i>Fecha última asamblea de barrio y número de asistentes</i>	<input type="text"/>
<input type="checkbox"/> Lan taldeak, elkartean – <i>Grupos de trabajo en la asociación</i>	<input type="text"/>

BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN ELKARLANA – COLABORACIONES CON OTRAS ASOCIACIONES Y AGENTES SOCIALES			
2020. urtean AUZOAN dauden beste erakunde batzuekin – <i>Colaboraciones con otras asociaciones y/o agentes sociales del BARRIO en el 2020</i>			
Programaren izena – <i>Nombre del programa</i>	Elkartea - <i>Entidad</i>	Datak - <i>Fechas</i>	Programaren helburuak – <i>Objetivos del programa</i>
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>



www.vitoria-gasteiz.org

CPAR_001

1. eranskina: Auzokoekin, komunikatzeko eta parte hartzeko bideak

Anexo 1: Canales de comunicación, información y participación con el vecindario

Herritarren Partaidetza, Gardentasuna eta Gizarte Etxeen Saila
Departamento de Participación Ciudadana, Transparencia y Centros Cívicos

Tfnoa - Tf: 010 / 945 16 16 16
informacion@vitoria-gasteiz.org

2020. urtean HIRIAN dauden beste erakunde batzuekin – Colaboraciones con otras asociaciones y/o agentes sociales del CIUDAD en el 2020

Programaren izena – Nombre del programa	Elkartea - Entidad	Datak - Fechas	Programaren helburuak – Objetivos del programa

UDALAK 2019. urtean bideratutako programa, plan eta parte-hartzerako prozesuekin elkarlana Colaboración con programas y procesos participativos del AYUNTAMIENTO desarrollados en el 2019

DATA ETA SINADURA - FECHA Y FIRMA

Gasteizen, -(e)ko (a)ren (e)an Vitoria-Gasteiz, a de de

Erakundearen izenpea eta zigilua – Firma y sello de la entidad



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

CPAR_002

2. eranskina: Elkartekideen zinpeko aitortpena
Anexo 2: Declaración jurada de personas asociadas

Herritarren Partaidetza, Gardentasuna eta Gizarte Etxeen Salla
Departamento de Participación Ciudadana, Transparencia y Centros Cívicos

Tfnoa - Tf: 010 / 945 16 16 16
informacion@vitoria-gasteiz.org

AITORPEN-EGILEAREN DATUAK – DATOS DE LA PERSONA DECLARANTE

1. abizena Apellido 1		2. abizena Apellido 2	
Izena Nombre		NAN/AIZ DNI/NIE	

ADMINISTRATIOAREN AURREKO ORDEZKARIA – PERSONA REPRESENTANTE ANTE LA ADMINISTRACIÓN

1. abizena Apellido 1		2. abizena Apellido 2	
Izena Nombre		NAN/AIZ DNI/NIE	

JAKINARAZPENETARAKO DATUAK - DATOS PARA ENVÍO DE NOTIFICACIONES

Aitorpen-egilearen – Persona declarante Ordezkaría – Persona representante

Kalea Calle		Zenbakia Número		Eskailera Escala	
Solairua Piso	Atea Puerta	Posta-kodea Cód. Postal		Herria Población	
Udalerría Municipio		Lurraldea Provincia			
1. Telefonoa Teléfono 1	2. Telefonoa Teléfono 2		Posta elektronikoa Correo Electrónico		

ZINPEAN AITORTZEN DUT – DECLARO BAJO JURAMENTO

IFZ duen Como representante legal de la Asociación

Elkartearen legezko ordezkaria naizen aldetik, Bazkideen Erregistro , NIF , declaro que el número de personas asociadas que figuran en el Libro Registro de Socios y Socias es de Liburuan agertzen diren elkartekideen kopurua dela.

DATA ETA SINADURA - FECHA Y FIRMA (*)

Gasteizen, -(e)ko (a)ren (e)an En Vitoria-Gasteiz, a de de

Izenpea – Firma

(*)

Eskabidea sinatu aurretik, irakur ezazu datuen babesari buruzko informazioa dagoen hurrengo orrialdean. Antes de firmar la solicitud, debe leer la información básica sobre protección de datos que se presenta en la página siguiente.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

2. eranskina: Elkartekideen zinpeko aitortpena

Anexo 2: Declaración jurada de personas asociadas

Herritarren Partaidetza, Gardentasuna eta Gizarte Etxeen Saila
Departamento de Participación Ciudadana, Transparencia y Centros Cívicos

Tfnoa - Tf: 010 / 945 16 16 16
informacion@vitoria-gasteiz.org

CPAR_002

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA

INFORMACIÓN SOBRE EL TRATAMIENTO DE DATOS PERSONALES

Tratamenduaren arduraduna <i>Responsable del tratamiento</i>	Vitoria-Gasteizko Udala - Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (IFK- CIF: P0106800F)
Tratamenduaren arduradunaren kontaktu datuak <i>Contacto del Responsable del tratamiento</i>	Calle Pintor Teodoro Dublang kalea, 25 01008 Vitoria-Gasteiz, Alava 945 161 616 - informacion@vitoria-gasteiz.org - www.vitoria-gasteiz.org
Datuak Babesteko Ordezkariaren kontaktu datuak <i>Contacto de la Delegada de Protección de Datos</i>	dbo-dpd@vitoria-gasteiz.org
Tratamenduaren xedeak <i>Finalidad del tratamiento</i>	Auzoetan dinamizazioa eta partaidetza soziala sustatzen laguntzen duten proiektuak garatzeko auzo elkartei zuzenduriko laguntzen kudeaketarako. <i>Gestionar las ayudas destinadas a asociaciones vecinales para proyectos que favorezcan la dinamización y participación social en los barrios.</i>
Tratamenduaren legitimazioa edo oinarri juridikoa <i>Legitimación o base jurídica del tratamiento</i>	DBAOKo 6.1.a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira. <i>Artículo 6.1.a) RGPD: El interesado dio su consentimiento para el tratamiento de sus datos personales para uno o varios fines específicos.</i>
Hartzaileak <i>Destinatarios</i>	Datu pertsonalik ez zaie lagako hirugarrenei. <i>Los datos personales no serán cedidos a terceros.</i>
Gordetzeko epea <i>Plazo de conservación</i>	Datuak gorde egingo dira, jaso ziren xederako eta/edo xede horretatik eta datuen tratamendutik erator litekeen erantzukizun oro preskribatzeko lege ezarritako epeak iraungi bitartean. Horrez gain, gorde egongo dira baita pertsona interesatuarekin izandako harremanetik eratorri litezkeen erreklamazioak egiteko edo horietatik babesteko aurreikusitako epeak iraun bitartean. Orobat, artxibategi eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko zaie datuei. <i>Los datos se conservarán el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y/o durante los plazos legales previstos para la prescripción de cualquier responsabilidad que se pudiera derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los mismos, igualmente, se conservarán durante los plazos previstos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones derivadas de la relación mantenida con la persona interesada. Asimismo, les será de aplicación lo dispuesto en la normativa de archivos y documentación.</i>
Pertsonen eskubideak <i>Derechos de las personas</i>	Datuak babesteko delegatuaren bitartez, pertsona interesatuak datuak ikusi ditzake, aldatzeko eskatu, edo, hala behar bada, datuak ezeztatzeko eskatu, horien kontra agertu edo tratamendua mugatzeko eskatu. <i>Las personas interesadas pueden acceder a sus datos, solicitar su rectificación o, en su caso, supresión, oposición o limitación de tratamiento, a través de la Delegada de Protección de Datos.</i>

- Irakurri eta ulertu dut datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazioa
He leído y comprendo la información sobre el tratamiento de datos personales.



3. eranskina: Proiektua egiteko gidoia.

Anexo 3: Guión para la elaboración del proyecto.

Jarduera-proiektuak eduki hauek garatu beharko ditu.
El proyecto de actividades deberá desarrollar los siguientes contenidos.

1.-Elkarte edo federazioaren aurkezpena eta oinarriak. (Nortzuk garen, zer egiten dugun, zergatik, zertarako, eta norentzat).-Presentación y Fundamentación de la Asociación o Federación de Asociaciones. (Quiénes somos, qué hacemos, por qué, para qué y para quién).

2.-Elkarteak eragina duen auzoaren deskribapena. Auzoaren beharrak, biztanleak, indarguneak.-Descripción del barrio en que tiene influencia la Asociación. Necesidades del mismo, puntos fuertes, población.

3.- Elkarte edo federazioak auzoarekiko planteatzen dituen helburu orokorrak.-Objetivos Generales que se plantean en la Asociación o Federación de Asociaciones de vecinos/as en relación al barrio.

4.- 2020an lortu nahi diren berariazko helburuak. Helburuetako bakoitzak, gainera, alderdi hauek aipatuko ditu:

-Objetivos específicos a conseguir durante el presente año 2020. Cada uno de estos objetivos a su vez reflejará:

- Aurreikusitako helburua lortzeko jarduerak.-Las actividades propuestas para la consecución del objetivo planteado.
- Deskribatutako jardueren hartzailen deskribapena.-Descripción de las personas a quienes van dirigidas las actividades descritas.
- Jarduera egiteko aurreikusitako datak.-Fechas previstas para la realización de las actividades.
- Jarduerak egingo diren tokiak.-Lugar en el que se desarrollarán las mismas.
- Aurreikusitako aurrekontua.-Presupuesto previsto para su realización.

5.- Elkarte edo federazioak programa eta jarduerak garatzeko dituen baliabideak.-Recursos con los que cuenta la Entidad para realizar sus programas y las actividades.

- o Baliabide ekonomikoak-Económicos
- o Baliabide materialak-Materiales
- o Giza baliabideak-Humanos
- o Lokalak-Locales

6.- Zer nolako jarduerak egiten diren normalean auzoan parte-hartzea sustatzeko.-Qué acciones se realizan habitualmente para fomentar la participación del barrio.

7.- Helburuaren eta jardueren jarraipena eta ebaluazioa. Zer ebaluatu nahi den, eta nola. Erabiliko diren irizpide eta adierazleak.-Seguimiento y evaluación del objetivo y actividades planteados. Qué se quiere evaluar y cómo. Criterios e indicadores a utilizar



4. eranskina: Proiektua egiteko gidoia.
Anexo 4: Guión para la elaboración del proyecto.

PROIEKTU BAT EGITEKO GIDA: 12 URRATS
GUÍA PARA HACER UN PROYECTO: 12 PASOS

1.- NORK EGINGO DU? ¿QUIÉN lo va a hacer?	Entitatearen aurkezpena. Ohikotasunez, auzokoan parte-hartzea sustatzeko jarduerak: auzo biltzarrak, kanpainak, kontsultak, jardunaldiak... Presentación de la entidad. Acciones habituales para fomentar la participación: asambleas, campañas, consultas, jornadas...
2.- ZERGATIK egin nahi duzue? ¿POR QUÉ queréis hacerlo?	Auzoaren deskribapena, beharrianak, biztanleak, indarguneak. Descripción del barrio, necesidades, puntos fuertes, población.
3.- ZER egin nahi duzue? ¿QUÉ queréis hacer?	Proiektuaren izena eta deskribapena. Denominación y descripción del proyecto.
4.- ZERTARAKO egin nahi duzue? ¿PARA QUÉ queréis hacerlo?	Proiektuaren helburuak. Objetivos del proyecto.
5.- NORI zuzentzen diozue? ¿A QUIÉN lo dirigis?	Proiektuaren hartzaileak. Personas destinatarias del proyecto.
6.- NOLA egingo duzue? ¿CÓMO lo vais a hacer?	Jarduerak eta zereginak. Proiektuaren metodologia. Actividades y tareas. Metodología del proyecto.
7.- NOIZ egingo duzue? ¿CUÁNDO lo vais a hacer?	Proiektua denboran banatzea (aurreikusitako datak). Temporalización del proyecto (Fechas previstas).
8.- NON egingo duzue? ¿DÓNDE lo vais a hacer?	Lekua. Kokapena. Localización del espacio. Ubicación.
9.- NOREKIN egingo duzue? ¿CON QUIÉN lo vais a hacer?	Giza baliabideak. Recursos humanos.
10.- ZEREKIN egingo duzue? ¿CON QUÉ se va a hacer?	Recursos materiales. Recursos financieros.
11.- ZENBAT balioko du? ¿CUÁNTO va a costar?	Aurrekontua. Presupuesto.
12.- NOLA EBALUATUKO duzue proiektua? ¿CÓMO VAIS A EVALUAR el proyecto?	Ebaluazioa. Erabiliko diren irizpide eta adierazleak helburuak lortzen ari zareten jakiteko.- Evaluación. Criterios e indicadores a utilizar para saber si estáis consiguiendo los objetivos.